

Eusko, ala euzko?*

(Eusko, or Euzko?)

Jemein, Ceferino de

[BIBLID \[1136-6834 \(1998\) 11:7-24\]](#)

Ceferino de Jemein bizkaitarra hizkuntzaren alorrean Sabino Arana-Goiriren dizipulu ezagunenetako bat izan zen, eta "sabindar euskara-eskola" deituan sartzen ahal dugu. Hala beraz, ez da harrizkoa komunikazio honetan "euzko" ortografiaren alde azaltzea, eta "eusko"arena arbuizatzea.

El vizcaíno Ceferino de Jemein fue uno de los discípulos más conocidos en materia lingüística de Sabino Arana-Goiri, y miembro de la que se dio en llamar "escuela euskeralógica sabiniana". No hay por tanto nada de sorprendente en que en esta comunicación se posicione a favor de la ortografía "euzko" frente a la de "eusko".

Le biscayen Ceferino de Jemein fut un des disciples les plus connus sur le plan linguistique de Sabino Arana-Goiri. Il fut membre de ce que l'on a appelé "la escuela euskeralógica sabiniana". Il ne faut donc pas s'étonner si dans cette communication, il prend nettement position pour l'orthographe "Euzko" face à celle d'"Eusko".

* *Eusko Gogoia*, 1951, II, nº 9-10, p. 49-53; nº 11-12, p. 5-8.

Gai onetzaz aldizkingi onetan argitalduriko nire azken-idazkayan abindu nebana betetan, gaur emen zelan Arana Goiri'k *euzko* itza igarriten eldu zan atzalduko dot.

Arana Goiri'k bai-ekijan ordurarrteko euzkeldun guztijak *euzkera* itza olan idatzi ebela, s'gaz; baña bere itxorrkuna arakatzen alegindu zan, ben eta sakonkiro, ordurarrteko euzkeltzale guztijak alegind ziran baño benago ta sakonkiro. Bere billaketak 1887'garren urtian asi ziran, eta *Etimologías euskéricas* eritxon bere idaztiñuan "eusko" erabiltzen asi zan. Gerotxu, 1896'garren urtian, *Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino* eritxon bere idaztiñuan ekin eban eta "eusko" euzkeldunen ixena dala esan eban. Beraz, 1887'garren urtian asi eta 1896'garren urteraño "eusko" itza erabili eban, berak lenegoz, bederatzi urtetan.

Ekin eta ekin, bere ikastiak jarraitu ebazan eta urtiak juan eta urtiak etorri, 1901'garren urtian, itz ori z'gaz idatzi biarr zala igarri eban. Beraz, itz onetzazko bere ikastiak hamalau urtetan, eten-barik, jarraitu ebazan. Iñok ezin leiteke esan, ba, Arana Goiri'k griñaz edo burukeriz "eusko" itza erabiltzen asi zalarik. Ondo adiralduta gero, gogoz arakatuta gero arrtu eban eta erabiltzen asi zan.

Nik jakin gura-neuke ia euzkel-landaz nok orrenbeste alegin egin daun "euskera" itzaren itxorrkuna billatzeko. Nok orrenbeste arduraz gai erretzaz iñardun eta arakatu daun. Beraz, Arana Goiri'ren itxorrkun ori bazterru ta alde batera izteko, alegin aundijak egin biarr dira, orain arrete egin diran baño sakontsubaguak.

Arana Goiri'k *euskera* ta *erdera* itzak arakatu ebazan eta aren bitartian gaiki bera bat eguala ikusi eban: *era*, edo euskera, erd-era. Besteren batzuk be, Arana Goiri'k baño lenago barrdinpen ori ikusi eben, eta guztijen ustez *era* itzak erderazko modo, manera esan gura-dau: *manera del eusk*, *manera del erd*; baña ez manera de cantar, manera de bailar eta abarr, manera de hablar baño. Beraz, *euskera*, *manera de hablar del eusk* da, edo *lengua del eusk*. Gerotxu, Arana-Goiri'k esan eban era ori laburderazko elhe'tik datorrala. Baña dana dala, baten eta bestian, *era*'k esan gura-dau *lengua*, *idioma*. Orinaiko argi eguan-eta, Arana-Goiri'k jakin gura ixan eban *eusk* nundik datorran eta zer dikurran. Eta onelan egin eban bidia:

Eusk-multzua ezta euzkerazkoa, k izkijak eztaulako iñoiz itza azkentzen, iru onetan ixan-ezik:

- a) *de*, *desde*, *po* ikurrtzen daunian: *emendik*, *nigandik*, *orregaitik* eta abarr.
- g) Aditz igarokorraren notia danian: *nik*, *zuk*, *berak* eta abarr.
- k) Askartija danian: *sagarrak*, *zugatzak* eta abarr.

Eusk-multzua estago iru gertaketa orretan. Beraz, gedin baten uts dago. Gedin ori? Zein ete-sa? Arana-Goiri'k, *euskera*'ren aldakuntza guztijak erkaturik, onelan jarrai eban:

Eusk-era
Eusk-ara
Esk-ara
Esko-ara
Esku-ara
Esku-era

Eta generatu eban:

- a) "La *a* de *ara* es cambio de la *e* de *era*. Cámbiase en *a*, con frecuencia, cualquier sonido vocal simple, en los casos siguientes: 1º, cuando pertenece a la sílaba terminal de un ele-

mento prostético de vocablo compuesto; 2º, cuando pertenece a la inicial de un epíteto"

"Ejemplos de los primero: de *erro* (brote) y *pe* (bajo), *errape* (ubre); de *solo* (heredad) y *guren* (sobre), el apellido *Solaguren*; de *arte* (encina) y la terminación local *tza*, *Artatza*."

"Ejemplos de lo segundo: de *gal* por *galdu* (perder) y *erazo* (obligar), *galera* (impedir); de *Hondarribia*, que se compone de *hondarr-ibi-a* (vado de arena), *Hondarrabia*, de donde vino al español Fondarrabia, Fuenterrabia."

"La forma *era* es, pues, anterior a *ara*."

g) "*Eus* no puede venir *es*, porque semejante fenómeno fonético no existe en el euzkera, pero si *es* de *eus*, por elisión del vocal regido u del diptongo *eu*, fenómeno frecuentísimo,"

k) "La vocal *u* puede en algunos casos desarrollarse en *o*. Pero es más frecuente el cambio de *o* en *u*, sobre todo cuando esa *o* precede a *a*, que es nuestro caso. Y así como de *baso-an* (*basuan*) y de *arto-a* (*artua*), de *esko-ara* (*eskua-ara*)."

Iru gertaketa orretatik agertzen da euskera dela aldakuntza guztijetatik lenegua ta antziñekuen, eusko-era'tik datorrala. Eta ori ezta, nik uste, ete-eteka ibiltzia baño. Ori da esaten danaren ziurki egotia.

Ormaetxea'tarr Nikola'k bere auzija onelan agertzen dau: "*¿eusk ala euzk?; ¿eusko ala euska?*" Eta nik derantzutot: ez eusk, ez euzk eta ez euska; eusko baño.

Baña ona emen orain untze zorrotza agertan yakula: *¿eusko, ala euzko? ¿S'duna ala z'duna?* S'duna, batzuk dasae, erritarrak beti s'gaz oguzten dabelako. Baña ori ezta guztiz egija; ezta egi-egija. Bizkai'ko Munitibarr'en eta beraren urraldietan, antziñan eta gaur be, euzkera z'gaz oguzten dabe. Beraz, erritarrak be z'dunak dira, antziñan eta orain, Euzkadi'ko lekuren baten. Erritarrak zelan z eta s nastuten dabezan jakiteko, ezta Azkue'ren iztegiya begiratutia baño. Bertan onelakuak aurrkituko dozubez:

Sabu eta zabu; sainga eta zaunka; sakel eta zakel; sartagi eta zartagi; sal eta zal (pasto); sarrast eta zarrast; sart eta zart; sata eta zata (abarca); sinistu eta ziñistu; sokor eta zokor (erizo de castaña); suil eta zuil; gasna eta gazta; asartu eta azartu; askaldu eta azkaldu (merendar); astun eta aztun (pesado); bastanga ta baztanga (viruela); esetzi ta ezetzi; ta abarr eta abarr. Gañera, lenguan esan neban lez, sustrai ta sorgin esaten dabez, zuztrai ta xorgin esan biarran.

Arana-Goiri'k ikuspen bat ixan eban, bere aurretiko guztijak ixan ezebena, ta au Gandia'k diño, ta Gandia ezta sabindiarra. Ona emen Gandia'k diñoa:

"*Arana Goiri tuvo el mérito de presentar la palabra eusko como un índice revelador de infinidad de nombres. Humboldt no había tenido esta intuición. A su juicio, la palabra euskara no contenía el nombre eusko y estaba compuesta, simplemente, de eusi-k-ara, o sea: charlas, k fonética y según, conforme, es decir: conforme al habla, lenguaje excelente - ¡olakorik!-. Arana-Goiri, en cambio, cree en la presencia de eusko en Bizcaya y Gipuzkoa y en muchos otros nombres hasta ahora inexplicables.*"

Ixen guzti orrek emen jarrtzia luzegija ixango zan eta lau bakarrik jarriko dobaz: Amezkoa, Orozko, Gipuzkoa ta Bizkaya. Arana-Goiri'k euren itxorrkunak emoten dauz, eusko dala gaya. Itxorrkunok txarrito ba-dagoz, betoz beste batzuk obiak. Gandia'k, behintzat, ontzat arrtzen dauz. Eta Arriandiaga Abeak be bai. Beronek, 1907'garren urtian auxe idatzi eban:

"*Debe preferirse la forma euzko a la eusko: a- porque su probable etimología es eguz-ko; g- porque aparece con z*

en las cuatro voces dichas, Amezkoa, Orozko, Gipuzkoa, Bizkaya. Ahora bien; ya el número prevalece a la forma euzko con s, la cual solo aparece, dentro del actual campo del idioma, en la voz Euskera y sus compuestos. Además, los nombres locales conservan siempre mejor las formas y elementos primitivos, que los que andan solamente en la voz de los hombres: luego la forma con z, que se halla en los cuatro nombres dichos, tiene mejor posesión y mejores argumentos que la forma con s."

"De ello se desprende si debe ser Euzkera o Euskera. La forma Euskera es legítima y no engendra confusión: luego es admisible. Pero es preferible la forma Euzkera: a- porque conviene conservar el sonido silbante dental en todos los casos reales o primitivos y restaurarlos en los perdidos g- porque en sonido afines, como lo son la s y la z, el vulgo indiscreto no es nuestro maestro, sino el instruido debe adoctrinar y guiar a aquél. Luego la forma Euzkera, además de ser real y primera, no soñada ni fantástica, es preferible a la forma Euskera."

Beraz, Arriandiaga'k uste-dau Euzko eguzki'tik datorra-la, ta Amezkoa, Orozko, Gipuzkoa ta Bizkaya'n agertzen dala. Eta Arriandiaga etzan euzkeltzale txatxarra, bena ta jakintsuba baño. Bere laguntzaz enabil ni txarrito. Onez ganera esan bihar-dot:

1- Arana-Goiri'ren aurre-aldijetan Aizkibel'ek eta Balbi'k euzko vasco'kin idetu eben, nai ta beste itxorkun bat emonaz, Gandia'k esaten daun lez.

2- Arana-Goiri'ren aldijetan Unamuno'k be euzko'ren z ontzat artzen eban, baña beste itxorkun bategaz.

3- Arana-Goiri'ren atze-aldijan Sagarminaga'k euzk-multua z'gaz ontzat artzen eban, baña ez euzko, o'gaz azkenduta.

4- Eleizalde, Arriandiaga, Erreterria, Bustintza ta beste euzkeltzale ospetsu askok Arana-Goiri'ren ustari guztijak ontzat artzen ebezan.

5- Gandia'k berak be, sabindiarra ez ixanik, euzko-itza z'gaz ontzat artzen dau.

6- Euzkadi'ko Jaurlaritza'k. Alderdi guztijan bayetzaz, ixen ori artu ta erabiltzen dau.

7- "Euzko-Deya" ixena darabilen izparringi guztijak, Paris'en, México'n eta Buenos Aires'en, euzko z'gaz idazten dabe.

8- "Euzko-Gogoa" ixenez Guatemala'n argitaltzen dan euzkel-aldizkingija, z'gaz argitaltzen da.

9- "Euzko-Gogoa"n idazten dabenen arrtian z'zale bi baño eztirala. Ormaetxea'k esan arren, bost gitxijenez dira: Urrutia'tar Gotzon, Argarate'tar Erraimun, "Sabindiar-Batza", "Emakume batek" eta "Jadarrka".Eta gitxijenez diñot azkeno bost zenbakijak baño eztozazalako, ta bos zenbaki orretan bost idazle orrek agertzen dira, z'dunak. Beste zenbakijak galdu yataz, ez nire erruz.,baña.

10- S'zaliak eztabela orain arrete tinko eutsi leiteken itxorkunik bat be agertu. Zein da, ba, eusk'en itxorkuna? Arana-Goiri'k diño: "Se le han atribuido muchas desde los primeros Euzkerálogos hasta la presente fecha: muchas por autores vascos y muchas por extraños. No quiero acordarme de ellas."

Gai onetzaz Arana-Goiri 1901'garren urtian idatzi eban lan irakurrigarriak 55 ingozki daukaz, euzkel-mamin-mamiñez betiak, eta orregaitik onelako idazkai baten danak adieraztia gaitz da. Baña nire lanxu au amaitzeko, Arana-Goiri'ren azken-itzak barridatziko dodaz:

"Hemos resumido al comenzar este artículo lo que significó euzko, es a saber, gente, familia o raza vasca; pero en todos los nombres étnicos y locales en que se encuentra ha llegado a nosotros con la significación concreta de porción orgánica de raza vasca, como en GIPUZKOA, BIZKAYA, OROZKO, AMEZ-

KOA, etc. Parece, por consiguiente, lo más acertado que la significación con que euzko haya de pasar al léxico del euzkera actual sea la de cada una de las porciones orgánicas que resulten de la primera división de la familia vasca, siendo así un euzko Laburdi, otro Nabarra, otro Gipuzkoa, etc. Euzkotar sería entonces en todos los dialectos el nombre de todo vasco, sepa o no euzkera."

"Y, en conclusión, agregando el sufijo di al nombre euzko resulta el de euzko-di significando etimológicamente conjuntos de euzkos; y aplicando a este la citada regla fonética, queda formado el nombre propio EUZKADI como el más natural, más castizo y más adecuado para significar al Pueblo Vasco en conjunto."

¡Gora, txalo, ta aintza gure Aberrija ezagutu-erazo euskunari ta berari ixen egokija emon eutsonari!

EUSKO, ALA EUZKO?!

Jadarrka'k

(Oarra: Atsegiñez argitarazten dizuegu Jadarka zindo ta zorrotzaren erantzuna. Batasun-bidean aurrera joan goaz. Orain eztabaidok euskeraz astintzen ditugu, etxeko auziak izaki. Esana da: etxe onean berri txarrik ez, eta etxeko suak etxean batu, ez iñora aldendu. Oraingo euskal-idazleok agindu au bete nai dizuegu. Areago: bekoki ta biotz zabalagoa dute euskal idazleok iñoren uste ta iritziak pakerik irauli ta iratietzeko. Goazen guziok elkarturik euskeraren onerako.

Egia esan: Argitara aurretik zure "Idazki-agirija" irakurri al izan zun Orixe'k, esku ta bidez, gañera, nik uste; naiz ta "Euzko-Gogoa"ren Zuzendariari idazkia zuk zuzendu, Orixe dugu lankideen nagusi; beraz, berak irakurri bear. Alare, zureganako gogo ona dudan ezker, oraingo au ez diot erakutsi "Orixe"ri: Orrezkero, argitarazi ta gero irakurriko berak ere, ta erantzungo dizu ala nai ba' du.

Euskera zabaldu, edertu ta iraunerazi dezagun.

Euzko-Gogoa.)

Landes'etako basetxe apal baten nagolarik, "Euzko Gogoa" deritxon aldizkingija arriu dot, belutxu, beraz. Eta bertan, nik idatziriko *Idazki agirija* argitalduba ikusi dot. Aldi luze dala idatzita egularik, ija aitzuta neukan.

Ni enaz arroputza, edo, behintzat, eneuke ixan gura; baña egizalia nazanezkero, nire idazkayari Zaitegi'k eta Ormatxea'k ezarri dautsaezan uarrak atsagin-ixan yatazala erakusteko enaz edozetarikoren bildurr. Bata ta bestiari, beraz, opaldu daustezan itz bigun eta gozuakaitik, janei eskarr!

Zaitegi'k egiten daustazan uarrak egokijak dira, ta ni berarekin nago, batzuk eta bestiak, bakotzak gure erara euzkaraz idatzi biarr-dogula; baña bakotzak be gure ustiak zabaldu ta aldeztuteko eskubidea dogu, bestienai itzal-ixanik. Zaitegi'k aldizkingijaren azpijan olako uarrak jarretzeko bereburu ta bere-esku da. Ormaetxea'renak, ordez, nire idazkaya-

1. Idazkai onetan erabiliko dodazan rr guztijak, erabilliarikuak dira, naiz erdijan naiz azpijan, eta Bera-Lopez-Mendizabal'en iztegitik arrtubak dira. Jakiña, bertan r gangarrdunik dagoz; baña aldizkingi onetan r gangardunik eztagon-ezkero, rr'gaz jarri dodaz. "Euzko-Gogoa"ren irakurriak bai-dakije ur (ura) dala eta ur (avellana), zur (madera) eta zur (liso, prudente) diran lez; eta abar. Beraz, olantxe idatzi bihar doguz, irakurri olantxe idatzi bihar dogun lez, irakurri-i'tik datorran-ezkero. Euzkerea olakoxia da, ta bere ixakereari jarraitu bihar dautsagu. Idazlerik geyenak eztabe olan egiten, baña sentzunduna dan-ezkero, nik olan egiten dot eta azketsi.

ren azpijan jarrtzeko ez dira aien egokijak, nire ustez. Ormaetxea be, bere-buru ta bere-esku da nire idazkayari erantzuteko, baña nire idazkayaren azpijan jarrtzeko ez ain-beste. Orrek erakusten dau Ormaetxea'k nire idazkaya begi-aurrrian euki daua, argitaldu baño len, eta, jakiña, orrelan obari aundija dau eztabaida onetan, Ezkagoz barrintasanian.

Eztabaida orotan, adierazle bakotxak bere eritxija erakusten dau, ta gero, urrango zenbakijan, ukatzalliak beria. Olan, adierazle bijak bardintasan berian dagoz, irakurrien aurrrian.

Orraitiño, baña, ni enaz orrekin mindu, bai ta bakarrik gauzak zelan ixan biarrko ziran, nire ustez, atzalduten dodaz. Ni egijaren billa nabil, Ormaetxea dabillan lez, ta orregati edozein eztabaidetan eneuke nik obaririk ixatia. Beraz, eztabaida au aurrera eruatekotan, egokijena au ixango zan: bakotxak zenbaki baten bere ustia argitalzia, edo artzakarriak gura badau, danak bata bestiaren ostian jarri ta azkentzeko Ormaetxea'k eta nik laburpen bat egitia.

Baña dana dala, nik gaurko zenbaki onetan nire erantzuna atzalduko dot, naiz txatxarra ixanda be, nire adimenak erakusten daustan lez eta edozetariko gogo txar-barik. Txarrto esana, baldin ba-da, azketsi, ta arira noyan:

1º “*Ez esan neri eusk idazten orain asi garea*” diñostazu zuk aizkide maite. Baña nik eneban olakorik esan. Nik esan nebana zan “*baña baten batzuk, oraingo aldijetan, Eusko, s'gaz, erabiltzen asi dira, bere aldakuntzaren zergaitija erakutsi-barik*”. Beraz, zuk nire esana aldatu dozu. Eta ezta barrdin, ikusiko dozun lez. Baita diñozu be auzi bi doguzala emen: “1) *eusk ala euzk*; 2) *eusko ala euska*”. Baña nire auzija etzan ori, beste au baño?: eusko, ala euzko? Au be gero ikusiko dogu.

Nik eneban esan, ba, oraingo aldijetan baten batzuk eusk idazten asi dirala, “oraingo aldijetan baten batzuk eusko s'gaz idazten asi dirala” baño. Eta au egi-egija da. Antziñeko idazle guztijak euskera, euskara, Euskalerrria ta abar idazten ebela nik ondo dakit. Baña eusko ezaban iñok idazten, eta euzko Arana-Goiri'k eta bere jarraitzailliak. Au be egi-egija da.

2º Nik aipatutako hamazazpi idazleren orde (edo sei aski aipatuben orden nai badozu), zuk amar aipatuten dozuz s'kin idazten ebenak, baña orrek ezeben eusko ta Euskadi erabiltzen. Ori oraingo aldijetan bakarrik jazo da, ori da nik esan nebana. Lenengo aldi aretan, Azkue'k eta Campion'ek, esaterako, ezeben ez euzko ta ez eusko, ez Euzkadi ta ez Euskadi erabiltzen, batzuk eta bestiak ezesten ebezalako.

Nik esan nebana zan –Gandia'ri buruz- aldi aretako euzkel-idazlerik geyenak Sabin'en ustiak ontzat arrtu ebezala, euzko ta Euzkadi idatzirik, eta baita be aldi aretan iñok ezebala eusko ta ez Euskadi idazten. Batzuk Euzkadi ta bestiak Euskalerrria idazten eben, baña eusko ta Euskadi iñok ez. Eta au be egi-egija da, ta azkenengo urterarte eztogu olakorik ikusi. Eta oraingo aldi onetan eusko edo Euskadi idazten asi diranak eztabe zegaitirik atzaldu, nik dakidala behintzat. Azkue'k eta Campion'ek –len esan dot eta orain berdiñot-ezeben zegaitik eusko ta Euskadi idatzi biarr-diran esan; bai ta bakarrik Euskalerrria esan bihar dala.

Campion'ek, zuk diñozun lez, Arana-Goiri'ri (berau illa zala) ta Arriandiaga'ri erantzun eutsen, bai, baña ez zegaitik eusko idatzi bihar-dan esateko, euzko ta Euzkadi itzak bazterrtu bihar-dirala esateko baño. Orreri nik ondo deritxot, olan uste bada; baña ezteritxot zuzen euzko bazterrtu ta eusko erabiltzari, aldakuntza'ren zergaitija erakutsi-barik. Zergaiti ori, nik dakidala behintzat, eztau iñok be atzaldu. Beraz, nire esana tinko dago.

3º Bizkaya'n eztozula iñoz Euzkadi z'rekin oguzten entzun diñozu. Ba' liteke nik entzumen txarra ixatia, baña nik asko askotan entzun dot, eta nik beti z'gaz oguzi dot. Baña zuk diñozun lez ba' litz be, nire ardurarik ez. Euzkeldunik geyenak, oguztian, z ta s zeintzen ezta kije, baña jakitun batzuk bai-dakije, ta eurok, orain arte, euzko, euzkotar ta Euzkadi idatzi dabe. Jayotzetiko euzkeldunak (jatorrak eristen datsienak) sustraya edo susterraya oguzten dabe, s'rekin, zusterraya, z'rekin oguzi-biarrian, zur-erraya dalako. Sorgiña be oguzten dabe, zorgiña oguzi biarrrian, zori-giña dalako. Eta abar eta abar, eundaka. Españarrik askok *zordao* oguzten dabe, baño danok *soldado* idazten dabe. Besteren batzuk, *gayo*, *gayina*, *poyo* oguzten dabe, baña eztau iñok olan idazten.

Gero diñozu euzko-itza gudarriak be s'rekin oguzten ebela. ¡Ez olakorik, aizkide on ori! Nik ba-dazaut euzko-gudarriaren ereserrkijaren egillia ta egiz esan daiketuzt z'gaz idatzi ebala. Gero, berarekin, taldez, amaika bidar abestu dogu, z'rekin oguzirik. Egille ori oso z'zalia zan baña ezin dautzut bere ixena emon, orain Franco-azpijan dagolako, jazartuba ixanda gero.

Azkue'tar Erramun eta Urkiaga'tar Estepan, bijak fusillatubak (Goyan begoz) euzko-gudarriaren iraslarriak eta artzakarriak ixan ziran eta eurekin Batz bat egin eben “Euzko-Gudaroztia” ixena jarri eustsaelarik, olan z'rekin, eta z'rekin danok idazten eben eta idazten dabe ondiño be. Iñok eztauko eskubiderik ixen orreri z kendu ta s ipintzeko, iraslien naya ixan zalako, ta bijak ilda dagozelako, ez politikia'gaitik, Euzkadi hainbeste maite-eben Aberrijagaitik baño.

4º Azkue, Altube ta abar erriagandik ikasten ari dirala diñozu; baña ele-buruz ezta errija ikaslerik onena ixaten. Ni Bilbao'ko auzorik erdeldunen jayo nintzan, eta erdeldun orrengandik erdereka ikasiko ba'neu jendera ederra!

Nire etxian bertan emakume erdeldun jator bat bixi zan. Alabatxu bat eukan, Melania ixen españar utsa ebana, ta berari oyuka beti ebillan.

- *Melania, pu te goa que te goa ...!*

Neskatilla, garrazikari oituta eguan, eta ezeutson jaramonik egiten. Eta amak barriro ba:

- *Mira, Melania, que te goa pegar!*

Auzo atatik bertatik be eskale bat ebillan, egunero, gas-telar jatorra bera, besapian kitarra zar bat eruala, abesturik:

*“Carretera rial arriba,
carretera rial abajo,
lo primero que se encuentra
los palos del tiligrafo.”*

Olakuak dira, ludi osuan, erritarren esanak. Eta ez esan niri euzkeraz ezta olakorik jazoten. Euzkeraz barrdin jazoten da, ta euzkeldun jatorrak, erriatarrak eta baseritarrak, hamaika astakeri esaten dabez eta oso txarri oguzten dabe: orretaki, nitiñori? Ezta kipa ta abar eta abar. Baña ezta idazlerik bat be *olan* idatziko daunik. Gañera beste erdelkeri aundi asko esaten dabez. Esaterako: “Orren gañian itz-egin biardogu”, “*tenemos que hablar sobre eso*” esateko. Eta eurok oso euzkerazkua dala uste dabe, ta gero, esakun ori erdarara bigurru biarr-dabenian *tenemos que hablar ensima de eso* esaten dabe. Beraz, erritarrak zelan itz eta oguzten daben niretzako ezta gauza. Zuzenago deritxot Arana-Goiri'k esan euskunari: *Se debe de escribir como se debe de pronunciar.*

5º *No hay más autoridad que la razón en materia científica* ... Ondo esana. Baña ele-gaiz *la razón* noberen adimenaren bidez egiztatu bihar-da, ez zenbakiztija lez: bi eta bi lau dira. Orregaitik, Arana-Goiri'k, oso zurra ta sentzuduna zalarik, gitxi-

tan esaten eban: *es probable, es verosímil*... Eta gauza bat *probable* ta *verosímil* zala uste-ebanien, ondo adiralduta gero, beretzat arrtzen eban. Eta orregaitik be, Sabin'ek ezeutsazan iñori euzko ta Euzkadi itzak indarrez arrerazo, bai ta bakarrik aldeztu ta zabaldu, berez arrtu gura-ebenentzako. Beraz, zuk eta bestiak, eusko ta Euskadi itzak nasai erabilli daitezubez, baña nik jakin gura-neuke zuben ustez nundik nora datozen jakitia. Eguzki'tik eztatozala? Nundik ete-datoz, ba? Eguzki z' duna ordez s' duna ixan leitekela? Zelan ori? Onetan Sabin' etzan ote-oteka ibilli, argiz eta ziur baño, esanaz: egu – luz (egun'en dago-la), z erazkua (modal) ta ki (parte material de, cosa de), edo eguzki (eguzki) ser de luz. Nik itxorkun orrei ederro baño ederrtuago deritxot. Zuzena ezpa-da, betor besta bat obia.

6º Zu azarrtuten zara esaten Arana-Goiri beti ote-oteka ibilli zala. Ez orrenbeste, Ormaetxea maite. Sendopenak eta bayetz osuak be bai-ebazan egin. Orain bertan Gandia eedestillari ta elestillari ospetsubak ontzat arrtzen dauz Arana-Goiri'ren usterik geyenak, euretztat esanaz: *Ellas, no obstante, revelan una admirable intuición y penetración*. Eta ganerutzen dau: *Algunas teorías podrían ser discutidas, otras son evidentes y el negarlas sin pruebas es obcecación e ignorancia*. Orrek dira nik eskatzen dodazanak, *pruebas*, ukatzen dauna, ba, egiztatu bihar-dauna da. Eta zuk, nik ikusten dodala behintzat, eztozu argibide edo *prueba*'rik bat be emon. Bolchevismo, fascismo, aristocracia ta totalitarismoa'k? Zer ete-dauke zer ikusi z orrekin? Pizka bat bidekatuta zabilzala deritxot, eta azketsi, Nikola aizkide.

¿Arana-Goiri ete-oteka ibilli zala? ¿Eta bestiak zer bayeztu ete-dabe?. Ezer ez, oteka ibilli baño: euzkera iberó'en elia zala, Caucaso'tik sanskrito'tik eta abar edo-datorrala, indoeuropea ta eztakit zer eta bai dakit zer edo-dala, ta abar eta abar oteka utsak eta tentelkeririk asko. Behintzat, euzko itza ta Euzkadi itza gure Jaurlaritza'k eztala zuben s ederra kentzeko iñortxo diraus-tazu. Eta nik derantzut: S kentzeko ez, baña bai z erabiltzeko. Eta gure z ederra kentzeko ñor ete-da iñortxo? Sentzuna-ete? Ba, nire sentzunak niri euzko ta Euzkadi ondo dagozala diraut, ta euska ta Euskalerria baño egokijaguak dirala uste-dot.

7º Z ori politikaz sarrru gura-ixan dogula diñostazu. ¡Olakorik! Eta politika ori jakintasun-iturririk garbijena eztala diñozu. ¡Ze politika ta politika oste! Sabin aundijak Euzkadi itza sortu ebanian ezaban politika'rik bat be egin, euzkerea arakatu ta azterrtu baño. Gandia jauna ezta Alderdikia, ezta aberztzalia be, baña Arana-Goiri'ren ustiak ontzat arrtzen dauz.

8º Aldizkingi onetan euzk-zale bi bakarrik dirala diñostazu, baña orretan be zuk zure opillari suba emoten dautsazu. Nik eztaukat baserri bazterrtu onetan "EUSKO-GOGOA" ren txorta, baña, buruz, nik iru gitxijenez gogoratzen dodaz: gixon bi ta emakume bat. Eta iru onei zegaitik euzko ta Euzkadi erabiltzen daben itaunduten ba-dautsezu, argi ta garbi erantzungo dautzube. Eusko ta Euskadi idazten dabenok orren argi eztot uste

erantzungo dautzubenik. Nik askori itaundu dautset eta erantzuten eztabe jakin.

Eta gañera nik diñotzut izparringiak berak "Euzko-Gogoa" ixena dala, ta ezteritxot egoki "Euzko" ixena darabillan izparringi baten eusko-itza erabiltzia. Behintzat, ori ezta iraukor ixatia. Eta ¿zeinbat izparringik eusko-ixena ete-daben? Batek bez. Ostera, *Euzko-Deya* deritxenak lau edo bost gitxijenez. Beste bat dago "Alderdi" deritxona, ta *Euzko-Alderdi Jeltzaliaren Deya* dala diño. ¿Alderdi Jeltzalia'rena dala ta, beraz, politikua? Baña Alderdiarrak sentzunik ez al-dabe? Eskubiderik eztabe, ala?.

9º Zuri bein Arrugain'ek esan zizuna, Sabin'en beraren aburuz gizakiari a ta emaztekiari e baldin ba'dagokio, zergatik ez euska? Ori diñozu ta egija edo-da, zuk nik baño oroimen aundijagua dozulako. Ni enaz gomutatzen, baña "Arrugain"ek ori esan ba-eustan ezeguan zuzen. Sabin'ek, nik dakidala, ezaban olakorik esan. Sabin'ek Bizkaya'n sortturikuai "bizkaitarr" esaten eutsen, naiz gixakija naiz emaztekiya izanik. Sabin'ek euzko-ixen berezkuak zeindu ebazan, zeindu bihar ebazalako. Eta gixonen ixen berezkuai a ezarri eutsen, eta emakume-ixen berezkuai e: Koldobik-a, Koldobik-e. Eta ori euzkel-arauz eta ez ote-oteka. Euzkeldunak, bixitiarr ixakijak zeindu biarr dabezanian, olan egi-ten dabe: txakurr-arr, txakurr-eme. Eta Sabin'ek, bide ori jarraiturik, olan egin eban: Koldobi-a(rr), Koldobik-e(me). Zegaitik olan egin eban ezaban berak atzaldu, oteka-barik jarri ta erabilli baño, ta bere jarraitzaillak ezekijen zegaitija; baña bere jarraitzalle zinduenetarikoren batek igarri eban. "Arrugain"ek baño lenago nik ori jakin nebala ziurr nago. Beraz, Arana-Goiri'ren irakaspenetatik ezin leike euska ta ez euzka atara. Euzkotarr baten gixa zeindu gura-ixango baeban, euzko-gixona edo euzko-emakumia esango edo-eban, edo ba'liteke euzko-arr, euzko-eme esatia, baña ezelan bez euzka, euzke, ta gitxijago ondiño euska, euzke, euzkotarr guztijai deituteko bere itza, euzko zalako. Txarrto? Ondo? Ori beste gauza bat da, ta ekingo dautsagu, Jaun-Goikua lagun.

10º Argibide geyago eskatzen daustazuz, ta emongo dautzudaz. Nik euzko erabiltzen dot eguzki'tik datorrala uste-dodala-ko. Eta zuk eusko nundik nora datorrala uste ete-dozu? Ondiño eztaustazu esan.

Euzko dala ta ez eusko, ezta euzka ez euska be, Arana-Goiri'k erakutsi euskun, bere ustez, jakíña. Baña uste ori baño beste egokijagorik nik eztot ondiño ikusi.

Idazki au luzegitu yat-eta, beste zenbaki baten zelan uste orretara Arana-Goiri eldu zan, euzkel-arauz, atzalduko dot. Bitarrtian, zuk zelan eusko edo euska, edo eusk eratu ziran atzalduten ba-daustazu, eskarr-zorr geratuko nayatzu.

Eta ordurarrte, tori nire bostekua ta, itxasoz ziarr, gogorr estutu.